
5. KANALAK

Gure ONGa, hainbat aldiz azaldu dugun bezala, irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta Palestinan gertatzen ari den egoera sustatzen du. Horretarako, enpatia eta elkartasuna ditugu helburu, besteak beste. Benetako gizarte-inpaktua sortzeko lan egiten dugu, herritarren parte-hartzea, lankidetzak eta gure ingurunea eralda dezaketen giza balioak sustatuz.

Funtsean, gure mezua eta gure balioak ahalik eta pertsona gehienengana iristeko, kontsumitzaileek gurekin modu aktiboan parte hartu ahal izatea nahi dugu, gure lanatik onurak izan ditzaketela jakiteko. Gehiago ezagutu gaitzaten lortzeko, hainbat komunikazio-bide erabiliko ditugu.

Alde batetik, sare sozialak erabiliko ditugu ONG gisa ditugun helburuak zabaltzeko. **TikTok** plataforman profil aktibo bat sortu eta mantenduko dugu, eduki aktibo eta dinamikoa argitaratzeko. Plataforma horiei esker, pertsona askorengana azkar, zuzenean eta, jakina, muga geografikorik gabe iritsi ahal izateko dugun funtzioa beteko dugu. Eduki bisual eta dinamiko horrek gure proiektuen egunerokotasuna partekatzeko balioko digu, eta gardentasuna, fidagarritasuna eta parte-hartzea areagotzen lagunduko digu, erabiltzaile mota bakoitzera egokituz. Gure asmoa argitalpenek gure proiektua ikusaraztea, interesa sortzea eta gure interes berak dituzten gero eta jende gehiagok gu ezagutzea ahalbidetzea da. Horrekin, gure **webgune ofiziala** ere sortu nahi dugu, hau da, gure online denda, gure helburuekin bat egin duten nazioarteko bezeroek gurekin arazorik gabe kolaboratu ahal izan dezaten.

Bestalde, komunikazio digitalaz gain, **aurrez aurreko elkarrizketak** egin nahi ditugu Bizkaiko hainbat udalerrietan: Barakaldon, Sestaon, Bilbon, Santurtzin, etab. Horretarako, elkarrizketak egingo ditugu, eta gure boluntarioek zuzenean gure proiektua azalduko dituzte eta zalantzak argituko dituzte, benetako lankidetzak sustatuz, hala nola boluntariotza, dohaintzak edo afiliazioa. Elkarrizketak beti modu egokian, hezian eta errespetuz egingo dira, betiere elkarrizketatu bakoitzaren pribatutasuna kontuan hartuta. Benetako iritziak ezagutzea eta herritarrei entzutea da asmoa, gure proiektua ikuspuntu desberdinen inguruan hobetu ahal izateko.


Era berean, gure ONGren funtsezko konpromisoetako bat hurrengo belaunaldien kontzientzia piztea eta balio solidarioak txikitatik lantzea dela jakinik, gazteengana iritsi nahi dugu ikastetxeetan, institututan eta gazte-zentroetan **hitzaldiak** emanaz, irakasleekin edo beste motatako hezitzaileekin koordinatuta eta adin-tarte bakoitzera egokitutako edukiekin. Izan ere, berbaldi hauetan gure lana eta gure balioak azalduko ditugu, hizkera erraza eta adibide praktikoak erabiliz. Gure helburuak eta gizartearekiko ardura bultzatuko ditugu; berez, ume eta gazteei aukera emango diegu galderak egin ditzaten eta beraiei iritziak adieraz ditzaten. Dinamika parte-hartzaileak ere egingo dira (jolas kooperatiboak, role-playing ariketak edo bideo-testigantzak), gazteek gizartea eraldatzeko duten gaitasuna

sentituz eta barneratuz. Horrela, gure mezua publiko berri eta zabalarengana iritsiko da, eta etorkizuneko herritarrek sentsibilizatuta egongo dira injustizia sozialaren aurrean. Gazteei erakutsiko diegu aldaketa soziala posible dela beren inplikazioari eta kontzientziari esker. Horrela, etorkizuneko kolaboratzaileak, boluntarioak eta aktibistak prestatzen lagunduko dugu.

Erabiliko dugun azken komunikazio kanala **komunikazio bisuala** izango da. Hain zuzen ere, herritarrek eguneroko jardueren erdian, presarik doazenean, gure mezua ikustea nahi dugu. Horretarako, autobus-geldialdietan, metro-sarreretan eta kale publiko nagusien inguruetan kokatutako euskarri bisualak erabiliko ditugu: kartel handiak, **“mupi”** (informazioa aurkezteko hiri-altzariak) digitalak eta kale-pankartak. Diseinu horiek kolore bizi eta atseginekin egingo dira, irudi erreal eta hurbilekin (adibidez eskuak elkarri helduta, haurrak irribarrez) eta mezu labur eta zuzenez lagunduta. Halaber, informazioa modu bisual eta erakargarrian eskaintzea bilatzen dugu, jendearen arreta berehala deituz eta gure proiektura hurbilduz. Lelo nagusien artean, besteak beste, honako hau erabili genezake: “Gurekin bat egin. Lagundu aldaketa sortzen.”

Ondorio gisa, herritarrei ekarpen txiki batek ere eragin handia izan dezakeela gogorarazi nahi diegu. Publizitate-kanal hauei esker, gure lana modu naturalean ezagutuko dute, euren egunerokotasunaren parte bihurtuz: autobusaren zain daudenean, ONGko helburuak aurrez-aurre ezagutzen edo joko didaktikoetan parte hartzen.





TikTok sare sozialaren
https://www.tiktok.com/@panpinaskeak?_r=1&t=ZN-91oLKp3Kf38

linka:

ONGko webgunea: <https://sites.google.com/view/panpinaskeak/inicio>